

## Ezinbestez, sindikatua. *Más que nunca.*

El Primero de Mayo es para ELA una jornada de reivindicación y de expresión de la lucha de clases. Este año 2012 hay que felicitar a la clase trabajadora vasca por su incontestable respuesta en la huelga general del 29 de Marzo, ejemplo de solidaridad y de lucha colectiva ante las políticas insensatas que nos pretenden imponer, tanto en el ámbito laboral como social.

Nos enfrentamos a retos muy duros. El capitalismo, en su estado más puro, ha logrado que los poderes políticos, sin distinción, debiliten aún más los instrumentos de reparto de riqueza y preparen una nueva fase de acumulación de capital. Así, utilizan la “coartada” europea para sacar adelante tres reformas laborales, dos de negociación colectiva, recortes de pensiones, durísimos recortes en el gasto social, recortes salariales en el sector público...Un suma y sigue que destroza cualquier equilibrio. No hay raya que no estén dispuestos a traspasar.

PSOE y PP acordaron la reforma de la constitución para establecer que la prioridad de la política sea el pago a los especuladores de la deuda y los intereses. Toda la política se supedita a ese objetivo. Sabemos perfectamente que allí donde estas políticas de ajuste se han aplicado, el paro y la pobreza han aumentado de manera notable. Más allá de mentiras e hipocresía, eso es lo que se nos ofrece.

Es por eso que rechazamos los presupuestos de Rajoy, y los de nuestras administraciones; rechazamos la estrategia de unificación de políticas antisociales en todas las administraciones utilizando la legislación básica que busca eliminar cualquier realidad diferenciada. Las rechazamos y exigimos que no se acaten esas decisiones, que quien piense distinto que Rajoy, actúe distinto y no aplique contra los ciudadanos medidas tan injustas.

Cobran hoy mayor sentido nuestras reivindicaciones de la huelga general: construir una alternativa social que defienda el empleo y los salarios, que exija un cambio en la política fiscal, el reconocimiento de derechos sociales, la no privatización de lo público y la defensa de la sanidad, educación, dependencia... La defensa en suma, del papel de redistribución de la riqueza que la política ha abandonado.

La última reforma laboral sólo es útil para subvencionar a la patronal, con el fin de atacar salarios y condiciones de trabajo y tratar de limitar la defensa colectiva de la clase trabajadora. Los convenios sectoriales no vinculan, se generaliza el despido más fácil y más barato, se promueve el descuelgue salarial, aumenta la flexibilidad en manos del empresario, se establece la prioridad del convenio de empresa con el objetivo de precarizar las condiciones de trabajo...

ELA asume el reto derivado de esta reforma; un reto duro, exigente. Sabemos que sólo va a haber negociación colectiva en los ámbitos sindicalizados, que las condiciones de trabajo van a depender del grado de organización sindical que logremos. ELA afirma que el sindicato es más necesario que nunca; el sindicato es el instrumento para frenar la unilateralidad empresarial. La alternativa sindical, en cualquier caso, tiene que basarse en el fortalecimiento de nuestra correlación de fuerzas, ganando poder sindical. La organización, el trabajo colectivo y la acción sindical son los únicos instrumentos en ese camino.

Este Primero de Mayo ELA quiere homenajear a la militancia sindical y de los movimientos sociales que no acepta el consenso neoliberal y defiende una propuesta de contrapoder. Es nuestra aportación de clase al sinfín de luchas que el movimiento sindical y social reivindicativo viene desarrollando en tantos países.

**GORA  
MAIATZAREN LEHENA!**

**ELA**  
EUSKAL SINDIKATUA

## Ezinbestez, sindikatua. *Más que nunca.*

Maiatzaren Lehena ELArentzat aldarrikapen ekitaldia eta klase-borroka islatzen duen eguna izan ohi da. Aurten euskal langile-klaseari zorionak helarazi behar dizkiogu, martxoaren 29ko greba orokorrean erantzun tinkoa eman baitu; eredugarria izan da elkartasuna eta borroka kolektiboak zer emaitza izan dezakeen, lan- eta gizarte-arloan inposatu nahi dizkiguten politika zentzugabeei aurre egiterakoan.

Aurrean erronka zailak ditugu. Kapitalismorik gordinenak lortu du botere politikoek, guzti-guztiek, aberastasuna banatzeko tresnak are gehiago ahultzea eta kapitala metatzeko beste aldi bati bide ematea. Europa erabiltzen ari dira hainbat erabaki zuzitzeko: hiru erreforma laboral, negoziazio kolektiboko bi erreforma, pentsio murrizketak, gizarte-gastua zeharo moztea, arlo publikoan soldatak jaitea... Bata bestearen atzetik, horrelako politikek zegoen oreka oro txikitu dute. Ez dago gaindituko ez duten mugarik.

PSOEk eta PPK Konstituzioaren erreforma hitzartu zuten, aurrerantzean administrazioen lehentasuna zorraren espekulatzailak eta interesak ordaintzea izan dadin. Politika guztia helburu horren menpe jarri dute. Ondo dakigu era honetako doikuntza politikak aplikatu diren lekuetan langabezia eta txirotasunak gora egin dutela. Gezurrak eta hipokrisia kenduta, hori da eskaintzen digutena.

Horregatik, Rajoyren eta gure administrazioen aurrekontuak ez ditugu onartzen; ezta administrazio guztien politika antisozialak bateratzerik ere, honetarako oinarri-legeak erabiltzen dituztelarik (honetarako legeen xedea edozein errealitate desberdin desagerraraztea da). Politika eta aurrekontuok arbuiatu egiten ditugu, eta gauza bat exijitzen diegu agintariei: Erabakiok ez ditzatela onartu; Rajoyren pentsamoldea ez badute, joka dezatela Rajoyek ez bezala, beste politika bat egin dezatela, eta herritarrei ez diezaietela hain neurri injustuak ezarri.

Gaur greba orokorreko gure aldarrikapenak are premia biziagoa bihurtu dira: enplegua eta soldatak defenditzeko alternatiba soziala, zerga-politika aldatzea exijituko duena; eskubide sozialen aitortpena; publikoa dena ez dezatela pribatizatu; osasungintza, hezkuntza eta dependentziaren arreta defenditzea... Hots, politikak baztertu duen egiteko bat defenditzea, aberastasuna birbanatzea alegia.

Azken erreforma laboralak ondorio bakarra izango du: patronala diruz laguntzea, soldatei eta lan-baldintzei erasotzea eta langile-klasearen defentsa kolektiboa eragozten saiatzea. Sektore-hitzarmenek ez dira derrigor bete behar; kaleratzea errazago eta merkeago egiteko aukerak ugaltzen dira; enpresarioak erabaki dezakeen malgutasuna handiagoa da; enpresa-hitzarmenari lehentasuna ematen diote, lan-baldintzak prekarizatu ahal daitezen...

ELAk erreforma honek dakarren erronkari aurre egingo dio. Erronka latza da, eta ahalegin handia eskatuko digu. Badakigu negoziazio kolektiboa esparru sindikalizatuetan baino ez dela izango; lan-baldintzak iristen dugun antolakuntza sindikal mailaren arabera izango direla. ELAk gauza bat esan behar du: sindikatua inoiz baino beharrezkoagoa da; sindikatua da enpresarioaren alde bakarreko boterea geldiaraz dezakeen tresna. Nolanahi ere, alternatiba sindikalaren oinarria gure indar-erlazioa izan behar da, botere sindikala areagotzea. Antolakuntza, lan kolektiboa eta ekintza sindikala ditugu bide horretako bitarteko bakarrak.

Maiatzaren Lehen honetan ELAk omen egin nahi die kontsentsu neoliberalak ukatzen duten eta kontrabotere proposamen baten alde dauden militantzia sindikalari eta gizarte-mugimenduei. Hau da gure klase-ekarpena mugimendu sindikal eta sozial errebindikatiboa hainbat herritan garatzen ari den borrokan harira.

**GORA  
MAIATZAREN LEHENA!**

**ELA**  
EUSKAL SINDIKATUA